

Anjel Lertxundi, Foru Liburutegiko irakurketa txokoko protagonista

Anjel Lertxundi idazlea (Orio, 1948) eta Inazio Mújica editorea - moderatzaile arituko da- protagonista izango dira bihar, apirilak 28 (osteguna), Irakurketa Txokoaren beste edizio batean. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak otsailetik urtearen amaiera arte antolatzen du Irakurketa Txokoa, hilean behin gaztelaniaz eta euskaraz, txandaka-.

Irakurle talde horien bidez, irakurketan interesatuta dauden eta esperientziak, sentsazioak eta pentsamenduak komunikatzeko gogoia duten pertsonak biltzen dira. Idazle eta irakurleen arteko topaleku bilakatu da.

Egileek beren azken lana komentatuko dute edo idatzi edo irakurri dituztenen arteko gogokoena, eta entzuleak beren gogoeten partaide egingo dituzte.

Oraingoan Lertxundi idazleak 'Eskarmentuaren paperak' liburua aukeratu du, haren gainean berba egiteko. Lertxundik Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasketak eta Filosofia eta Letrak ikasi zituen, Donostian, Erroman eta Valentzian, eta urte batzuetan, irakasle eta kazetari jardun zuen. Haren lehenengo liburu argitaratua 'Hunik arrats artean' bilduma izan zen, eta ordutik, eleberriak eta ipuinen bildumak argitaratu ditu. Halaber, artikulak eta entseguak idatzi ditu, eta gazte eta umeentzako literatura egin du.

Haren lanen artean, honako narrazio liburu hauek daude: "Goiko kale" (1973), "Aise eman zenidan eskua" (1979), "Hamaseigarrenean, aidanez" (1983), "Carla" (1989), 'Lurrak berdinduko nau' (1990), "Kapitain Frakasa" (1991), "Otto Pette", "Piztiaren izena" (1995), "Azkenaz beste" (1996), 'Argizariaren egunak' (1998, Euskadi Literatura saria), 'Lehorreko koaderno' (1998), 'Zorion perfektua' (2002), 'Ihes betea' (2006), eta 'Zoaz infernura, laztana' (2008) eleberriak; 'Konpainia noblean' (2004) narrazioen liburu; 'Gogoia zubi' (1999) y 'Mentura dugun artean' (2001) entseguak, eta 'Italia, bizitza hizpide' (2004) kronika liburu.

Datozen hiletan, hainbat lagun etorriko dira topaketetara: Francisco Javier Irazoki, Eider Rodriguez, Maria Maizkurrena eta Eli Tolaretxipi, eta, zikloa bukatzeko, Bernardo Atxaga, azaroan. Lehenago, Kepa Murua eta José Fernández de la Sota eta Yurre Ugarte eta Luisa Etxenike egon dira literatur hitzordu honetan.